

2017

### 3. Herriko informazio aldizkaria



# Auzapezaren hitza

---

2017 urtea ez dugu hasten ahal iragan dugun urteari pentsatu gabe.

Euskal Herriko 158 herrietako hautetsiek HELEP bakarraren alde nagusiki egin duten bozkak markatu du 2016 urtea. 2017ko urtarrilaren 1an, lurraldeko 10 herri elkargoen bateratzeak Euskal Hirigune Elkargoa sortu du.

2016an, Hazparneko Lurraldea herri elkargoak hTHPren lantzea abiatu du. Herriarteko THPko Antolamendu eta Garapen iraunkorrerako proiektua (AGIP) definitua izan da.

Herri mailan, 2016an Bil Etxea berritua izan da, sukaldea, komun publikoak eta eskola. Horretaz baliatzen naiz ere obra hauen finantzamenduan ausarki parte hartu duten erakunde publikoak eta sartzeari aitzin obrak bururatzeko behar zen guzia egin duten ofiziale guziak eskertzeko.

Aurten ere, funtzionamendu dotazioen 20334€-ko beherakada bat jasan dugu, eta horrek gure funtzionamendu gastuen menperatzera behartzen gaitu. Kudeaketa on honi esker, inbestitzen segitzen ahal dugu, herriko familien zergak goititu gabe.

2016 urte hau aberatsa izan da gertakari mailan : Arberoan ihes, mendixketako lasterketa, eskoletako pestak, pilota lehiaketa, Pesta Berri, herriko pestak, etab...Azpiegiturretatik haratago, pentsatzen dut herriko eragile guziak ari direla gure bizi baldintzak hobekitzeko eta gure herrian gauzak egiteko plazerra beti handiagoa izan dadin. Zuen bizkortasuna bereziki preziatzen dut eta horregatik bihotzez eskertzen zaituztet.

Pozten naiz ohartzea 2016 urte honek aire baikor bat utziko diola gure herriari. Urte berri hau denendako eta elgarrekin aberasgarria izanen dela esperantza dugu !

Herriko etxeako talde guziak enekin bat egiten du, zuek denei, zuen hurbilekoei ere, gure agiantza beroenak desiratzeko, 2017 urtea ona eta zoriontsua izan dadila, eta nahi duzuen guzia eman diezazuela.

***2017 URTE BERRI ON!***

## Informazio baliagarriak :

---

- Herriko etxearen irekitze orenak:
- Asteartea: de 8:30tik 12:30 arte eta de 13:00tik 18:00 arte
  - Ortziralea: de 8:00tik 12:30 arte eta 13:00tik 16:30 arte

Herriko etxea: 05 59 29 52 27 edo mairiearberoue@orange.fr

Herriko kontseiluetako txostenak errezibitu nahi badituzue, e-mail egin ezazue

Antton Larraburu: 06 25 26 84 17

Bernadette Pochelu: 07 60 01 10 65

Alain Armendariz: 06 84 80 49 08

Mathias Mirande: 06 50 71 30 61



# Aitzinkontua

## Funtzionamendu saila

| GASTUAK (€)  |                | DIRU SARTZEAK (€)  |                |
|--|----------------|--|----------------|
| Karga orokorrak (ura, edf, asurantzak, bide eta sareak...) | 50 600         | Kargen arintzea  | 11 000         |
| Langile kargak   | 70 000         | Zergak   | 115 000        |
| Beste kudeaketa kargak (ordainsariak, erakundeei zergak)   | 26 600         | Hornidurak eta diru laguntzak (baserrialdeko elkartasun hornidura) | 74 500         |
| Diru mailako kargak  | 5 700          | Eraikinen diru sartzak   | 30 000         |
| <b>GASTUAK OROTARA</b>                                     | <b>152 900</b> | <b>DIRU SARTZEAK OROTARA</b>                                       | <b>230 500</b> |

## Inbertsio saila

| GASTUAK (€)   |                | DIRU SARTZEAK(€)                        |                |
|---|----------------|---|----------------|
| Materialaren erostea (baserak, eskolako oheak)                                | 3 000          | BEZ diru-itzultzea                      | 24 100         |
| Bideak  | 33 700         | Bideendako diru laguntza                | 16 300         |
| Herriko eraikinak (eskola, gela)  | 162 300        | Herriko eraikintzat diru laguntza       | 44 773         |
| Sareen hedatzea ( elektrika guneen azkartzea eta segurtasun neurrien hartzea) | 2 500          |   |                |
|   |                |   |                |
| Mailegua (Herria + SDEPA)   | 23 400         | Diru mailako operazioaren diru laguntza | 105 600        |
| <b>GASTUAK OROTARA</b>  | <b>224 900</b> | <b>DIRU SARTZEAK OROTARA</b>            | <b>190 773</b> |

| Lekuko 4 zerga zuzen      | 2015 urteko tasa | 2016an bozkatutako tasak | 2016ko zerga oinarriak | 2016 produktuak |
|---------------------------|------------------|--------------------------|------------------------|-----------------|
| Bizileku zerga            | 16.29            | 16.29                    | 269 600                | 43 918          |
| Funts eraikiaren zerga    | 8.00             | 8.00                     | 183 900                | 14 712          |
| Funts ez eraikiaren zerga | 25.27            | 25.27                    | 27 000                 | 6 823           |
| Enpresen funts zerga      | 26.90            | 26.90                    | 15 400                 | 4 143           |
| <b>OROTARA</b>            |                  |                          |                        | <b>69 596</b>   |

# Egoera zibila :

---



**Sortzeak** : Anna LARRE, Lore HAICAGUERRE, Emma PELTRE



**Heriotzak** : Jean Baptiste BORDARRAMPE, Marie-Baptistine APHECETCHE, Françoise ECHEVERZ, Marianne BETBEDER, Joseph AROTCARENA, André SALLABERRY, Joseph LANDETCHEVERRY

## Diplomatuak

---

Zorionak 2016an diploma lortu duten gazteei eta hain gazte ez direnei eta gure erreusitze agiantza guziak 2017an diploma bat lortzen entseatuko direnei !



## Administrazioko urratsak

---

### ADINGABEKOENDAKO LURRALDETIK ATERATZEKO BAIMENA

2017ko urtarrilaren 15az geroz, adingabekoendako lurraldetik ateratzeko baimena berriz emana izan da.

Orain, atzerrira bidaiatzera joaiten den haurra ez baldin bada bere guraso batekin bederen, agiri hauek baitezpadakoak izanen zaizkio :

Adingabekoaren nortasun agiri baliiodun bat : Nortasun agiria edo pasaporteia

Izenpetu duen gurasoaren nortasun agiriaren fotokopia, baliioduna edo 5 urte hauetan epez kanpo bilakatua: Nortasun agiria edo pasaporteia

Guraso aginpidea duen guraso batek izenpetu inprimakia

Lurraldetik ateratzeko baimen inprimakia (15646\*01 CERFA) service-public webgunean deskargatzen ahal da.fr. Inprimaki horrek ez du Herriko Etxearen parte hartze beharrik.

### NORTASUN AGIRIA

Ez ahantz : 2017ko urtarrilaren 1az geroztik, nortasun agiri nazionalen baliozkotasun iraupena 15 urtekoa da. Neurri honek helduei emandako eta 2014ko urtarrilaren 1an oraindik baliozkotasuna zuten nortasun agiriendako ere balio du (erran nahi du 2004ko urtarrilaren 2aren eta 2013ko abenduaren 31ren artean emanak)



## ERROLDA MILITARRA

1999ko urtarrilaren 1az geroztik, 16 urte dituzten gazte guziek haien bizilekuko Herriko Etxean erroldatuak izan behar dute haien hamaseigarren urtebetetzea egin ondotik hiru hilabete barne.



Herriko Etxeak Errolda agiri bat emanen die, baitezpadakoa dena atxikitzea.

Izan ere, agiri hau konkurtso eta azterketa ezberdinetan izena emateko (Lanbide gaitasun agiria, Lanbide ikasketen brebeta, Baxoa, gidabaimena etab...)

Erroldaren ondotik, gazteak Zerbitzu Nazionalaren Zentroak antolatzen duen Defentsa eta Hiritartasun Egunera deituak izanen dira.

## HIRIGINTZA

Arkitekto baten beharra finkatzen duen mailaren apaltzea indarrean ezartzen duen erabakia 2016/12/14an argitaratua izan da.

2017ko martxoaren 1tik goiti pausatua izanen diren eraikitze baimenak, zolan 150m<sup>2</sup>-ko eremua sortzen badute, arkitekto batek egin beharko ditu.

## Eskola :

---

Donamartiri eta Donoztiriko eskolak biltzen dituen bateratzeak 52 ikasle errezibitzen ditu. 22 haur (bat 2017an sartua) ama eskolan eskolatuak dira eta 30 ikasle lehen mailan Donoztirin. Azken urte honetaz geroz, ama eskolan sartzan ahal da bi urtetarik goiti.

Marjolaine Le moine frantses erakasle eta zuzendariak eta Mailys Ihidoy euskarako erakasleak haurrak zaintzen dituzte egunero. Biak 2016ko sartzan etorri dira Caroline Etchebarnen ordezkari (gaur egun Donoztiriko zuzendari postua duena) eta Joëlle Larralden ordezkari. Errientsak ama laguntzaileen eguneroko presentziak laguntzen ditu. Sylvie Pagadoy eta Aurélie Biscaichipy haurren laguntzeko lan egiten dute (haurtzaindegian, klasean, jantegian, garraioetan, eskola erritmoetan...).

Zaindegi zerbitzua egunero proposatua da 7:30tik goiti Donamartiriko eskolan eta 18:00 arte Donoztirin. Haurrak ama laguntzaile batek bere ardurapean hartzen ditu. Familiei euro bateko parte hartzea galdegina zaie arratseko zaindegiarendako.

Eskola garraioei dagokienez, departamenduak hautatu du 2016ko iraileko sartzan prezio sistema berri baten plantan ezartzea. Lehen zerga ordaintzaileek finantzatzen zuten, aldiz orain

erabiltzaileak zerbitzuaren kostuaren %10a finantzatzen du. Neurri honen helburua kalitatezko zerbitzu honen iraunkortzea da, aldi berean familia bakotxari erantzukizunak emanaz ; gastu berri hauetan familien laguntzeko, Donostiri eta Donamartiriko herriek bukaerako zenbatekoaren %40a berengain hartzea deliberatu dute. Orokorki, familiek interesa erakutsi dute zerbitzu honendako. Ondorioz Ikas Bide herriarteko sindikatuak bi herrien arteko autobus joan-jinkariak atxiki ditu RPlan eskolatuak diren haurrentzako.

Jantegiaren aldetik, apairuak Uharte Garaziko Paxkal Traiteur enpresak prestatzen ditu eta 3.35 euro balio dute. Aurtendik, banku-transferentziaren bidez pagatzen ahal da. Haurrak ama laguntzaile baten eta Joana Caillaud-ren ardurapean dira. Beti Herriko Etxearekin kontratupean da. Herriko aldizkari honetaz baliatzen gira zoriontzeko, eta aita ere, haien Leiane alabaren sortzearendako, 2016ko irailean.

Astelehen eta ostiral guziz, hurrek animazio ezberdinak deskubritzen dituzte eskola erritmoen kari oren bat eta erdiz. Jakin ezazue, estatuak 2014 plantan ezarri duen neurri honek herrien inbestimendu bat behar duela finantza mailan, eta plantan ezarri behar diren jardueren bilaketa lana. Mementuko, jarduera hauek hautuzkoak eta kitorik dira. Haien helburua haurraren loratze pertsonala eta bere ingurumenari irekitzea da.

Herria kanpoko partaideekin lanean ari da besteak beste hurrei arlo berriak ezagutarazteko (ernatze musikala, musika tresnak eginez, zirko tailerrak, etxe hondakinen eta birziklatzearen inguruko prebentzioa, baratzezaintza eta eskulanak).

Aurten ere, hurrek herriko adinekoekin memento azkarren partekatzeko aukera ukan dute. Hauek beti motibatua eta uros dira pentsatuak diren jardueretan parte hartzea. Berriz eskertzen ditugu eta elkarretaratze hauek dinamika berean segituko dutela espero dugu.

Herriaren partez, eskerrik beroenak esku hartzaile guzietan haurren mesederako inplikaturik.

## HORAIRES TENOREAK

Lundi - Vendredi / Astelehena - Ostirala  
08h45 - 12h00 / 13h30 - 15h00  
Mardi - Jeudi / Asteartea - Osteguna  
08h45 - 12h00 / 13h30 - 15h45  
Mercredi / Astezkera : 08h45 - 12h15

Activités périscolaires  
Eskolaldi inguruko jarduerak

Facultatives et gratuites  
les Lundi et Vendredi  
de 15h00 à 16h30

Urririk  
astelehen eta ostiral guziz  
arratsaldeko 3etatik - 4ta erditarat

Accueil Garderie  
Haurzaindegia

Accueil de 7h30 à 18h00  
Harrera 7:30tik 18:00ra

Services communaux  
Herriko zerbitzuak

Transport scolaire / Garraioak  
Cantine municipale / Kantina  
Garderie / Haurzaindegia

ENSEIGNEMENT BILINGUE

HELEBIDUN IRAKASKUNTZA

## CONTACTS – HAREMANAK

Mairie de Saint Martin d'Arberoue  
Donamartiriko Herriko ebea

☎ 05.59.29.52.27  
mairiearberoue@orange.fr



Mairie de Saint Esteben  
Donoztiriko Herriko ebea

☎ 05.59.29.42.31  
comstesteben@wanadoo.fr



COMMENT S'INSCRIRE  
Nola egin izena emaiteko ?

Se rendre à la Mairie concernée  
Tokiko Herriko Etxera joan



LES PARENTS dans la vie de l'école  
GURASOAK eskolako bizian

Association de Parents d'Élèves HAURENTZAT  
HAURENTZAT gurasoen elkartea

Délégués des parents d'élèves  
Gurasoen ordezkariak

apehaurentzat@gmail.com

## REGROUPEMENT PEDAGOGIQUE INTERCOMMUNAL HERRIARTEKO BATERATZE PEDAGOGIKOA

ST MARTIN D'ARBEROUE - ST ESTEBEN  
DONAMARTIRI – DONOZTIRI



ÉCOLES PUBLIQUES BILINGUES  
ESKOLA PUBLIKO ELEBIDUNAK



Bourg - Plaza  
64640 St-Martin-d'Arberoue / Donamartiri



Bourg - Plaza  
64640 Sa Int-Esteben / Donoztiri

## ÉCOLE MATERNELLE Arna eskola

Saint Martin d'Arberoue - Donamartiri  
☎ 05.59.29.54.63  
ecolestmartinarberoue@wanadoo.fr



1 Enseignante Français - 1 Enseignante Basque  
2 classes - 2 ATSEM  
Frantses irakasle - Euskarazko irakasle 1  
2 ikasgela - 2 laguntzaile



## ÉCOLE ÉLÉMENTAIRE Lehen mailako Eskola

Saint Esteben-Donoztiri  
☎ 05.59.29.66.06 – 05.59.29.67.59  
ecolestesteben@wanadoo.fr



1 Enseignante Français - 1 Enseignante Basque  
2 classes  
Frantses irakasle 1 - Euskarazko irakasle 1  
2 ikasgela



## PROJETS D'ÉCOLES Eskolako proiektuak

Accueil possible dès 2 ans / Sartzea 2 urtetatik goiti

Eveil par les sens / Gogoa piztu zentzuen bidez

Enseignement bilingue à parité horaire / Oren parekotasuneko irakaskuntza elebiduna

Mise en place d'ateliers autonomes / Lantalde autonomoak plantan ezartzea

Solidarité, partage, tutorat entre les enfants / Elkartasuna, partekatzea, tutoregozta haurren artean

Équipement informatique et numérique / Ekipamendu informatikoa eta numerikoa

Apprentissage d'une langue étrangère dès le CP / Atzerriko hizkuntza ikastea Cptik goiti

Pédagogie de projet sur l'année en lien avec les temps d'activité périscolaires / Urteko proiektu pedagogia eskolaldi inguruko jardueraren denborei lotua

Aide individualisée par les enseignants / Irakasleen laguntza ikasle bakoitzaren araberak  
b) **Soutenir ausazkoen bidez, l'art, la culture et le sport**  
**Munduari ireki, artea, kultura eta kirolari esker**

Rencontres sportives et musicales / Kirol eta musika elkarretaratzak

Projet école et cinéma / Eskola eta zinema proiektua

Activités périscolaires / Eskolaldi inguruko jarduerak

Sorties culturelles et patrimoniales / Kultura eta ondare ateraldiak

Randonnées et découverte du territoire / bilaldiak eta lurraldearen ezagutza egitea

Sorties piscines / Igerilekura ateraldiak

# Laborantza :

---

Hazparneko eta Bidaxuneko herri elkargoen baitan laborantzaren inguruko ikerketa bat egin da. Honen helburua, diagnosiaren bidez gure herriarteko Tokiko Hirigintza Plana elikatzea da. Izan ere, laborantza gure zutabe ekonomiko nagusietako bat da, horri esker sortzen diren zuzeneko enpleguei zein aktibitateari esker. Maleruski, egiturazko krisia pairatzen ari da azken aldi hauetan: behi esnea, haragia, etab... Haatik, gure lurraldean, indarra duen egiazko dinamika bat bada, bereziki gazteen instalatzea eta zirkuitu laburren garapenari dagokionez.

Ikerketa hori burutu ahal izateko, "Blezat Consulting" ikerketa kabinetak lurraldeko laborarien parte hartze aktiboa galdegin zuen. Gure herriko laborari zenbaitek parte hartu zuen tailer horietan. Hauek ziren helburuak:

Laborantzarekin jokoan denaz jabetzen laguntzea

Tokiko tendentzietan eta loturiko arriskuez (transmisioarena, lurrarena...) jabetzea

Tokiko mailan egin daitekeenaz jabetzea eta egungo erabakiek etorkizuneko jardueran ondorioak ukanen dituztela ohartzea

Laborantza prospektiba lan horiek, herriarteko THPa gauzatuko delarik garrantzizkoak eta baitezpadakoak diren gomendioak plantan ezartzea ahalbidetuko dute.

# Inbertsioak :

---

## Bil Etxea

Bil Etxea gelan obra handiak egin ziren udan zehar.

Sukalde eremua osoki berrantolatua izan da:

- Bereziki sukaldearen sortzea, kanpora begirako irekidurarekin eta plantxak edo frijigailuak hartzeko gaitasuna lukeen eremu estali batekin





- Baxera garbitze soilerako antolatu den gela bat, baxera garbigailu batez, baso garbigailu batez eta garbitzeko aska batez hornitua.
- Baxerak sailkaturik biltzeko eremu bat

Sukalde ateratzean aska batez ekipatua den mahain bat ere ezarri da. Supazterraren kentzeak lekua egin du eta gelak 120 pertsona har ditzake gaur egun.



Komun publikoak eta ama eskolako komunak berrantolatu dira ahalmen urriko pertsonen irisgarritasunerako arautegia bete dadin.



Trinketeko aldagelak berriz tindatu dira eta, ahalmen urriko irisgarritasunerako arautegia bete dadin, beharrezkoak zen berrantolaketa burutu da.

Lan guzi horien eta sukaldeko ekipamenduen erostearen zenbatekoa 172.574 € ra (27.575 € BEZ gisa berreskuratzeak) iristen da, zeinari 120.952 €-ko diru laguntzak kendu behar zaizkion (lurrealde kontratua, LLED (frantsesez DETR) eta energia aurrezteko eginiko obregatik esleitzen diren laguntzak). Ondorioz, herriak 24.047 € ordaindu beharko ditu.

Lan horien gehigarri gisa, herriak, alokairuan emanen dituen baxerak eta zerbitzurako platak erosi ditu.

## Bide obrak:

Borda Zelai auzoko bidearen mundrunatzea, 2015ean abiatutako lanen jarraipenaren logikan berritu da.

Ikastolaren heinean ibilgailuak emekiago joan daitezten espaloi eta argi seinaleak eman dira. Obra horiek Departamenduko Kontseiluak diruztatu ditu bere osotasunean.

## Karpa:

Heletako, Donoztiriko eta Donamartiriko herriek bakoitzari 2.000 € kostatuko zaion karpa bat erosi dute. Arauak betetzeko egoeran ezartzea ordaindu duen Heletako herria izanen da jabe nagusia. Karpa Heletan atxikiko dute eta 3 herriek baizik ez dute baliatuko. Kargak, baliatzearen arabera partekatuko dira eta muntaketa zerbitzua 300 €-koa izanen da. Baliatzen duen elkarteak arrisku guztiak estaltzen dituen aseguru hartu beharko du eta 1.000 euroko bermea galdegina izanen zaio

## Orotarik :

---

### *Lursail baten salmenta*

MIREMONT Jaun-andereek 6 zenbakidun lotea erosi diote herriko lotizamenduari.

### *Gela alokatzea:*

Bil Etxea gelaren barne araudi berria onartu du eta herriko webgunean eskuragarri da: [www.saintmartindarberoue.fr](http://www.saintmartindarberoue.fr) “Bil Etxea” atalean.

Alokatze tarifak ere berrikusiak izan dira:

- Herriko elkarteendako:
  - Doako eskura uztea
  - Sartzea ordainaraziz gero: 80 €-ko prezio finkoa edo doako sartzea herritarrendako
- Kanpoko elkarteendako:
  - 160 €-ko prezio finkoa eguneko (24 oren)
- Herritarrendako:
  - 80 €-ko prezio finkoa eguneko (24 oren)
  - Basera urririk prestatua
- Herrikoak ez diren pertsonendako:
  - 250 €-ko prezio finkoa eguneko (24 oren)
  - 60 €-ko prezio finkoa baseren alokatzeko

Gela baliatu aitzin eta sartu aitzineko egoera akta egin ondoren, herriko etxean 500 €-ko bermea utzi beharko da. Bermea itzuli aitzin, baliatu ondoko egoera akta egitea ere aurreikusten da.

Alokatzaileak ez du hautsi, hondatu edo galduko litzatekeen basera ordezkatzeko ahalik eta, basera zerbitzua ez dadin despare izan, herriak finkatu duen prezioan ordaindu beharko du.

## HONDAKINTEGIAK

2005eko irailaren 1etik geroz, hondakintegi bat irekia da Heletan (Iholdiko bidean), eta horri esker, GARBIKIren lurraldearen hegoaldea estalia da.

### IREKITZE ORENAK :

Asteartea : 16:00tik 19:00 arte

Ortzeguna : 16:00tik 19:00 arte

Larunbata : 10:00tik 12:00 arte eta 13:00tik 17:00 arte.

Besta egunetan hetsia

Irekitze orenetan, zaindaria deitzen ahal duzue  
06 33 95 23 45 zenbakira deituz.



Zerbitzu hau kitorik da eta deneri irekia !

## Auto partekatzea

- *Sarean...*

Herriko webgune ofizialean beldurrik gabe begira ezazue:  
[www.saintmartindarberoue.fr](http://www.saintmartindarberoue.fr)

Berean herriari buruzko informazio anitz atzemanen duzue (aurkezpena, etxebizitza proiektua, herriko kontseiluaren bilduma, elkarteen aurkezpena, Bil Etxea gelaren kudeaketa...). 2016ko abendu finitzeaz geroztik, *auto partekatzeko tarte bat* gehitua izan da. Hara horren ibilmoldea:

-Donamartiritarrendako auto partekatzea (Donamartiritik abiatzea edo Donamartirirat arribatzea)



**Printzipioa:** memento oro bidaia baten proposatzeko edo proposaturiko bidaiaren baliatzeko ahala bada.

## Zein da ibilmoldea?

1. Noiztenkako *bidaia* edo *bidaia* erregularra proposatu: (xehetasunak *commentaires* atalean idatz – ikus webgunea – )
  - Deitura eta izena idatz
  - Bidaia deskribatu, abiatze tenorea, gibelerat jite tenorea
  - Telefono zenbakia
2. *Bidaia bat baliatu*:  
Interesatua den pertsonak bidaia proposatzen duenarekin moldatzea baizik ez du.

## *Aktibitate berria herrian:*

### Tipientzat, pottokekilako ibilaldiak

Jean Pierre eta Agnès 3 eta 10 urte arteko ahurrendako (haur1, heldu1) pottokekilako ibilaldiak proposatzen dituzte. Pentze eta oihan artean iragaten den kilometro bateko ibilaldi denboran autonomia osoan egonen zarete. Pentsa ezazue ibilaldirako egokiak diren oinetakoak janztea.

Tarifa: 5 €

Eskola garaiko irekitzea: asteazken arratsaldetan, larunbatetan eta igandetan

Opor garaietan egun guzietz:

Orentegia: 10:00etatik 12:00etara eta 14:00etatik 18:00etara

Aro txarra izanez gero, aktibitatea ezeztatuko litzateke.

Gurekin harremanetan sar 07 62 27 95 62 zenbakirat deituz

## HTHP

---

### **Hazparneko Lurraldearen herriarteko Tokiko hirigintza planaren (hthp) lantzea: Urrats handi bat egina izan da**

2015ko abenduaren 17ko erabakiaren arabera, Hazparneko Lurraldea Herri Elkargoak bere Herriarteko Tokiko Hirigintza Planaren (hTHP) sortzea agintzen zuen eta elkar aditze baldintzak finkatzen zituen.

Hirigintza kodeak zehazten du Tokiko Hirigintza planak aurkezpen txosten bat, antolamendu eta garapen iraunkorrerako proiektu bat (AGIP), antolaketa eta programazio orientazioak, araudi bat eta eranskinak badituela.

**Herriarteko THPko Antolamendu eta Garapen iraunkorrerako proiektua (AGIP) definitua izan da.**

Dokumentu hau, Hazparneko Lurraldea Herri Elkargoaren proiektuaren adierazpena da bere lurraldearen antolatze eta garatzeko.

hTHPko txostenaren funtsezko eta ezinbesteko parte da, araudiak, zonakak eta antolamendu eta programazio orientazioek bere edukiarekin bat egin beharko baitute.

### **Zein garapen nahi dugu? Nun eraiki? Bihar, zer lurralde laborantxarendako ?**

Besteak beste, galdera hauei arrapostu eman beharko die hTHPak. Lanketa honen bidez, Herri Elkargoak proiektu estrategiko bat lortu du bere eremuarendako. hTHPak lurraldearen antolaketa eta garapena gidatuko ditu ondoko 10 urteendako eta ondorioz lurraldearen erabilpen baldintza orokorrak finkatuko.

Erronkak garrantzizkoak dira: Hirigintza eta lurralde antolaketa mailan, bizitegi, laborantza, ingurumen, garapen ekonomiko eta mugimendu mailan...

Hazparneko Lurraldeko AGIParen orientazio nagusiak, 11 Herriko Kontseiluk eta Elkargoko kontseiluak eztabaidatu dituzte, beheago deskribatuak diren hiru parteengandik antolatuz :

1. Populakuntzaren harrera menperatu eta lurraldearen nortasuna zaindu ;
2. Ekonomiaren dinamika eta laborantza atxiki eta egituratu ;
3. Bizi ingurunea, paisaia eta ingurumen kalitatea babestu.

Orientazio hauek, zeinen barnean eremu kontsumoaren mugatze helburuak zehaztuak diren, Baionako hiriguneko eta Landes hegoaldeko Lurralde Koherentzia Eskemak finkatutako erronka estrategikoekin bat egiteko finkatuak izan dira.

### **Gehiago jakiteko**

Publikoari jakinarazia zaio AGIP, eta honen sortzeko bilduak izan diren lurraldeko datuen bilduma, joan den azaroaren 28ko eta abenduak 1ko bilkura publikoetan aurkeztuak izan direnak, irakurtzen ahal direla:

- Kide diren 11 herrietako Herriko Etxeetan eta Herri Elkargoko egoitzan,
- Linean, Herrietako eta Herri Elkargoko webgunean: <http://www.hazparnekolurraldea.com>

## **Arberoan Alaiki: 2. edizioa**

---

Lehen urteak ukan zuen arrakasta ikusirik, “Arberoan Alaiki” aisialdi zentroak (Aiherrako, Isturitzeko, Donoztiriko eta Donamartiriko herriek kudeatzen dutena) 4 herrietako hurrei harreran egin zuten uztailaren 11tik agorritik 19ra. Beste behin ere, Isturitzek bere ikasle mozorroa utzi eta udako jauntziak ezarri zituen. Iragan udan aisialdi zentroak 70 hurrei harrera egin zuten. Haurrak AIGA tituluduna den Gomber Andere zuzendariaren, AIGA ikastaroan zen zuzendariorde baten, 5 animatzailearen, tartean 4 AIGA tituludunak, eta AIGA ikastaro praktikan zen ikasle langile

baten zaintzapean egon ziren.



Zentro elebidunak eremu naturaleko hizkuntza erabilpena errespetatzen du. “Hezkuntza berriko” metodoetan oinarritzen da, erran nahi baita, haurren ongizatean, bere garapenean eta mota guzietako jokoetan oinarritzen dela. Haurra, etorkizuneko herritar izateko ahalmena emanen dion ingurune batean egoten da (bereziki zentroko arazoak aipatzeko haurren kontseilua, haurrek aterabideak atzematen dituzte).

Proposatutako aktibitateak orotarikoak eta anitzak dira: mozorrotzea, kanpoko jokoak, ur jokoak, altxor xerkatzea, sukalde, musika, dantza eta kantu tailerrak, natura deskubritzea, pasio handiko profesionalekin elkartzea, belaunaldi arteko topaketak eta ateraldi batzuk.

- Ongi etorri indianoen etxera
- Olinpiadak
- Lanbideen ezagutzera
- Natura eta kirola
- Komikietako pertsonaiak
- Artea eta zirkua

Donamartiriko 12 hurrek zerbitzu horretaz profitatzeke ahala ukan zuten iragan udan.

Egiazko behar bati erantzuteko eta burasoei zabaldu zitzaizen galdetegiak gibelerat helarazi zituen iritzi baikorrak ikusirik, 4 herriek jitekoa den udan aisialdi zentroaren aktibitatea errepikatzea erabaki dute.

## Turismoa

---

### Turismo eskumena eta HELEPa

2017ko urtarrilaz geroztik, turismo eskumena euskal HELEParen esku gelditu da. Hazparneko herri elkargoak 2016an esleitu zuen aitzinkontua berrituko da 2017 urterako. Antolakunde berriak, 2017ko urria aitzin, IMEP (Industria eta Merkataritzarako Erakunde Publikoa – frantsesez EPIC) formatuan herriarteko turismo bulego baten sortzea ukanen du helburu, “turismoaren sustapena” eginkizunaren eskualdatzearekin. Euskal HELEPak turismo estrategia, “Euskal Herria” turismo helmugaren sustapena, ere definitu beharko du. Gisa berean, jadanik badiren egitura guzietako eginkizunak eta langileak beregain hartu beharko ditu.

### Egonaldi zerga:

Turismoaren garapena fagoratzeko sortu zen. Lurraldearen sustapena egitea ahalbidetzen du eta, 2016an, harrera liburuxka bat argitaratu zen besteak beste. Zergaren irabazia turismoaren emendatzera bideraturiko xahutzeentzat soilik esleitzen dira. Gisa horretan, gure lurraldean, Hazparneko eta Bastidako herriarteko Turismo Bulegoaren finantzatzeko esleitzen da. 15/09/29ko delibero bidez, Herri Elkargoak 2016tik aitzina araubide mistoa indarrean finkatzea erabaki zuen, hots:

- Egonaldi zerga finkoa etxebizitza mublaturako eta arrotz gelendako.
- Zinezko egonaldi zerga kanpin, hotel, turismo erresidentzia, uda herrixka eta ibiltari aterpeendako eta baita beste aterpetze mota guzientako ere. Ordainbide finkoko egonaldi zerga, aldi berean irekitze garaian eta zerga biltze garaian aterpetxeak duen harrera gaitasuna eta gaualdi kopuruaren arabera finkatua da.

Zorduna ez da herrian egonaldian dena (zinezko egonaldi zergarekin gertatzen den bezala) bere ondasuna alokatzen duen pertsona fisikoa baizik. Ondorioz, aterpetzaileak ezingo du fakturako lerro gehitu batean egonaldi zerga agerrarazi. Agerrarazten ahalko duen gauza bakarra da, “Egonaldi zerga finkoa barne”.

Hazparne Lurraldeko Herri Elkargoak zerga biltze garaia ekainaren 15etik irailaren 15era finkatu du.

Jagoitik, etxebizitza mublatuen eta arrotz gelen jabeek deklarazioa herriko etxean egin beharko dute, berantien zerga biltze garaia baino hilabete bat lehenago eta ondoko zehaztasunak emanez:

- Aterpetzearen izaera
- Irekitze edo alokairuan ezartze garaia
- Etxebizitzaren harrerarako gaitasuna, bateko kopuruaren arabera finkatua

Herri elkargoak alokatzailearen deklarazioaren zehaztasuna bere esku diren medio guziak baliatuz egiaztatzeko eskubidea bere egiten du. Fakturaztea egiaztapen horien arabera egingen da.

Bestalde, deklaraziorik ezean zein deklarazioa eskasa edo okerra litzatekeen kasuan, Elkargoko kontseiluak 2015eko erreformak aurreikusten duen “zuzeneko zergapetzea” prozedura baliatzeko posibilitatea atxikitzen du. Hartara, zaintzarako talde bat plantan emana izan da.

Lurraldearen sustapena:

- 2016an harrera liburuxka bat argitaratu zen. Herriko etxean duzue eskuragarri.
- 5 herri elkargo biltzen dituen euskal mendia turismo poloak bultzaturik, webgune bat eraikitze bidean da. Elkargo horiek ondoko hauek dira: Garazi-Baigorri, Amikuze, Xiberoa eta Iholdi-Oztibarre eta Hazparneko Lurraldea-Bastida. Webgunea martxoan egon beharko luke sarean.

## Euskal HELEPa:

---

Frantziako lurralde guziak bezala, Ipar Euskal Herriak erreforma sakona biziko du bere antolaketan eta gobernantza mailan. 2016ko urtarrilaren 1az geroztik, Ipar Euskal Herria Akitaniako, Poitou-Charenteseko eta Limousineko lurraldeak biltzen dituen 6 milioi biztanleko eskualde baten parte da: Akitania Berria.

2017ko urtarrilaren 1ean, Herriarteko Lankidetzarako Departamendu Eskema berria onartuz geroztik, herriarteko mapa berria agertu zen.

Bere herriarteko lankidetzarako eskeman, Pirinio Atlantikoetako Prefetak Euskal HELEP bakarra sortzeko proposamena luzatu zuen. Herriko etxeko kontseiluek 2015eko udazkenean iritzi soila eman zuten eta, 2016ko udaberrian, Ipar Euskal Herri mailan HELEP bakarra osatzearen egingarritasuna hilabeteetan aztertu ondoren, proiektuaren alde agertu ziren behin betiko.

2016ko uztailaren 13an, Pirinio Atlantikoetako Prefetak lurraldeko 10 elkargoen elkartzetik heldu zen Ipar Euskal Herriko Hirigune Elkargoaren sortzea xedatzen zuen erabakia hartu zuen.

Ordezkaritza instantzia erabakitzaileen baitan onartu da:

- Elkargoko kontseilua 233 kidek osatuko dute. Biltzar erabakitzaile horrek HELEParen funtzionamendua, aitzinkontuen erabakiak, Zerbitzu Publikoko ordezkariak eta lurralde antolaketa mailako orientabideak arautzeko zeregina ukanen du. Donamartiriko herria auzapezak ordezkatu du.
- Batzorde iraunkorra 69 kidek osatuko dute. Elkargoko Kontseiluaren ahalmen ordezkariak ukanen du. Ahalmen guziak beregain hartzen ahalko ditu, espresuki Elkargo Kontseiluarenak direnak izan ezik.

- Batzorde betearazlea 25 kidek osatuko dute. Batzorde iraunkorraren eta Elkargo Kontseiluaren deliberoak prestatu eta betearazteko betekizuna du. Administrazioaren ardura du.

## Hitza elkarteei emana

---

### *Adin ederra*

Donamartiriko ADIN EDERRA, 66 kide dituen GENERATIONS MOUVEMENT departamendu mailako federakuntzaren baitan den elkarte da.

Aktibitate ezberdinak burutzen ditu:

#### Kultura aktibitatea:

- Nazio mailako kultura lehiaketan parte hartzea, erditik gorako sailkapena erdietsi dutelarik.
- Liburutegia, astean bi aldiz permanentziak bermatzen dituzten nahianterei esker gero eta jende gehiago erakartzen duena.
- “MEMORIA” ateleria, ASEPTek animatzen duena eta hamar bat pertsona motibatu dituena.
- Etxeko istripuei buruzko hitzaldia, CIAParen parte hartzearekin.

#### Aktibitate ludikoak:

- Petanka lehiaketa, lehen aldiko klubean artean antolatzen zena.
- Belote lehiaketa, herriartekoan abiatu dena eta etorkizun ederra duena segurki.
- Animazio ezberdinetan parte hartzea; Arberoan ihes, tokiko bestak, ihiztarien apairua...

#### Beste aktibitateak:

- Hilabeteko lehen astearte guzietz herriko gelan elkartzea joko ezberdinetan aritzeko (kartetan, musean, eleketa, janari dastaketa).
- Hilabeteko 3. asteartean belote jokoan aritzea eta, aroaren arabera, astean behin edo bitan petanka trebaketa.

“GENERATIONS MOUVEMENTS” Federakuntzak antolaturiko egunak; topaketa egunak GARLINen eta Elkartasun egunak BIDAXUNEN.

Ondoko herrietako klubekin batera (DONOZTIRI, AIHERRA eta ISTURITZE) antolaturiko ateraldiak: Sagarnotegira eta Gaetariara, Aturrin ibilaldia eta Lurrama.



Belaunaldien arteko aktibitatea: Urtea finitzeko, eskola publikoko hurrek ADINEKOAK gomitatu zituzten Aita Noel eta Olentzerori harrera egiteko, pottoka ttipia ahortzi gabe. Hauen animazioek loriatu gintuzten eta arratsaldea denen artean partekatu genien askari goxo batekin bururatu zen.



## Pesta komitea

Pesta komiteak 2016 urteko besten bilan baikorra egiten du. Apairuak eta animazioek arrakasta handia ukan zuten eta horren ondorioz zuetariko batzuek beste nonbaitera joan behar izan dizue jaterat. Barkamena galdegiten dizuegu horregatik eta jakizue aterabide bat plantan emanen dugula herritar guziek partekatze memento horretaz gozatzeko ahala ukan dezaten.

Argi da besta horiek antolatzea ezinezkoa izanen litzatekeela eske denboran erakusten duzuen usaiatzeko parte hartze eskuzabalik gabe. Bihotzez eskertzen zaituztegu. Bestalde, karpa gure esku utzi duen herriko etxea ere eskertu nahi genuke, zinezko diru aurrezteko suposatu baitu.

2017 urte hau gertakari anitzen erritmoan joanen da:

- Inauteriak otsailaren 25ean iraganen dira. 11:30etik aitzina, Pesta komiteak ogitartekoak salgai emanen ditu inauteria Donamartiriko plazatik pasako delarik.
- Pesta komiteko kideek Irulegiko Irratiaren aldeko eskea bermatuko dute. Beti bezala, ontsa errezibituko gaituzuenaren segurtamena dugu. Jakizue, zuen eskuzabaltasunari esker gure egunei erritmoa ematen dien irrati honi laguntza handia ekarriko diozuela.

– Martxoaren 17an, ostiralarekin, Irlandar gaua antolatuko dugu San Patrizio kari. Gaualdi horretan “Fish and Chips” formulari esker afaltzen ahalko duzue eta garagardo gama zabala eskainiko zaizue. Gaualdia Irlandar musika proposatzen duten Agus Craic eta Cel 3 taldeek animatuko dute urrenez urren.



– Martxoaren 4an sagarnotegira ateraldia izanen da.

– 2017 urteko bestak uztailaren 7tik 14rat iraganen dira. Azken eguna Donamartiritarrendako izanen da, usaiazko herritarren apairuarekin.

## *Baserrialdeko biltokia*

Baserrialdeko biltokia 1901eko legedipean den elkartea da, mota orotako animazioak antolatuz herria biziarazteko helburua du, izan kirol, josteta, kultura edo hezkuntza animazio bidez.

Bulegoa 6 kidek osatzen dute: Nicolas ELISSALDE, Sylvain HAICAGUERRE, Mañu HARISMENDY, Xabi THICOIPE, Philippe HAICAGUERRE et Laurent BETBEDER.

2016 urtean antolaturiko ekimenak:

– Zazpi probintzietako mus txapelketa: ondoko edizioa 2017ko urtarrilaren 27an iraganen da, ostiralez.

– Frantziako mus txapelketa: sailkatzeko lehen itzulia herrian. Ondoko edizioa 2017ko otsailaren 11n iraganen da, larunbatez.

– Esku huskako lehiaketa: urtarrila eta apirila artean iragan zen eta 28 talde bildu zituen 3 mailatan.

– Besta Berri: aro ederrarekin iragan zen eta, eskertzen ditugun herritarrei esker, jendeketa eta parte hartzea handia izan zen. 2017an, Besta Berriren Otaba ekainaren 27an ospatuko dugu. Gurekin jiteko enbeia duen pertsona oro ongi etorria da eta bere parte hartzea ahal bezain ontsa joan dadin gurekin harremanetan sar daiteke.



- Palazko buruz buruko lehiaketa: irailetik abendura iragan zen eta 95 pilotari baino gehiagok parte hartu zuen hartan. Lehiaketa hori, esku huskakoa bezala, Goxoki ostatuarekin elkarlanean antolatu zen.



- Arberoan Ihes: Arberoan Ihesen lehen edizioa izan zen eta denek goraipatu duten bezala biziki arrakastatsua izan zen. Nahianten mobilizatzeari, aro ederrari, bisitari anitzen jiteari eta proposaturiko ikusgarrien kalitateari esker asteburu hori gure gogoan da oraino. Bigarren edizioaz mintzatzeko, herritar guziendako irekia izanen den bilkura bat iraganen da 2017ko urtarrilaren 20an, 20:30ean Bil Etxea gelan.
- Mendixka lasterketa: azaroaren 20an iragan zen eta sekula ikusi gabeko arrakasta erdietsi zuen, 245 korrikalari erakarriz. Dena giro biziki ederrean joan zen berrogei bat nahianten parte hartzeari esker. Ondoko edizioa 2017ko azaroaren 19an iraganen da.





Lerro hauek baliatu nahi genituzke baserrialdeko biltokiak antolatzen dituen animazioetan parte hartzen duten guziak eskertzeko.

Elkartearen helburua herrian mota guzietako animazioak eskaintzea denez, biltokiak kontzertu, antzerki, ibilaldi, hitzaldi eztabaida eta beste gisako ekimenak antolatzen ahalko ditu noiztenka.

Berrikitan, baserrialdeko biltokiak eta besta komiteak 2 plantxa eta soinu tresneria bat erosi dituzte. Sylvain Haiçaguerre, baserrialde biltokiko lehendakariak ditu tresnak kudeatzen. Interesatuak balin bazirezte tresna horien alokatzeko, deitu 06.75.64.19.83.

Huna prezio zerrenda :

|              | Alokatzte saria | Bermea |
|--------------|-----------------|--------|
| Soinu tresna | 10              | 300    |
| Plantxa      | 10              | 50     |
| Frijigailua  | 10              | 50     |

Erran gabe doa, elkartean sartzeko enbeia lukeen pertsona oro ongi etorria litzatekeela. Biltokiaren bizian parte hartzea gure herri maitearen bizian parte hartzea da eta jendearekin elkartzeko eta memento goxoak pasatzeko ahala ematen du.

Beraz, gogoia izanez gero, ez duda.

Xehetasunendako, dudarik gabe, lehendakari postua partekatzen duten bietariko batekin harremanetan sar zaitez:

Nicolas ELISSALDE 06 50 50 01 85; Silvain HAICAGUERRE 063 75 64 19 83

Donamartiriko baserriko elkarteak Demain filmaren proiektzioa antolatuko du martxoaren 24an ostiralarekin 7ak terditan, solasaldi bat ondotik.

Demain 2015ko frantses filma dokumental bat da, Cyril Dion eta Mélanie Laurent-ek egin. Zientifikoek kezkarri emaiten duten gero baten aurrean, esperantza emaiten dituzten alternatibak erakusten ditu filma horrek. Alternatiba horiek gogoketak bultzatu behar dituzte, ikusmolde beltz batean erori gabe.

## *“HAURRENTZAT” ikasleen guraso elkartea*

RPIak (bateratze pedagogikoa) 51 ikasle ditu :

- 21 ikasle Donamartiriko ama eskolan eta 30 Donoztiriko lehen mailan

Irakasle taldearen proiektuak :

2017ko ekainan, RPIko hurrek haien zirku ikusgarria aurkeztuko dute eskolako pestan. Proiektu honen prestatzeko, ama eskolako haurrak Biarritzera joan dira azaroan San Petersburgoko zirkoaren ikusgarria ikusteko; lehen mailako haurrak Angelura joanen dira apirilean “Rudo”-ren ikusgarriarendako. Haurren parte batek Laetitia Boumeddanen esku-hartzeak ukanen ditu. Zirku eta pailazo arteak ezagutaraziko dizkie eta haurrak eta irakasleak ikusgarri proiektuaren eraikuntzan



lagunduko ditu.

Bestalde, RPIko hurrek beste eskolekin hainbat elkarretarazetan parte hartzen dute, Lasterka elkartearen kari (borroka, haur kantariak, golfak).

Duela hainbat urte, lehen mailako hurrek "école au cinéma" (eskola zineman) dispositiboan parte hartzen dute (hiru film urtean).

Ama eskolarendako zinema emanaldia abenduaren 13an iragan da Donapaleuko Saint Louis gunean.

"Mokofina" ikusgarria Isturitzen pentsatua da ama eskolarendako apirilean.

Azkenik hurrek hondakinei eta birziklatzeari buruz lan egingen dute Garbiki elkartearekin elkarlanean.

Hori guzia posible da, ateraldiak eta autobusa diruztatzen dituen gurasoen elkarteari esker.

\* Burasoen elkartearen aktibitate proiektuak :

Sartze bilkuraren kari, buraso elkartearen bulegoak hiru kide berri errezibitu ditu :

DURRUTY Cécile

LACROIX Marie Christine

GOYENETCHE Maialen

LARREGAIN Aude

SUZANNE Nadia

Eskolari edo elkarteari buruzko edozein argitasunendako, gurekin harremanetan sar zaitezke :

apehaurrentzat@gmail.com

Errientsen proiektuen finantzatzeko eta gauzatzeko, burasoen elkarteak aktibitateak plantan ezartzen ditu urte osoan zehar :

- Eguberriko askaria : Askaria eta opariak haur eta burasoei eskainiak,

- Azaroa/abendua : Egutegi salmenta, txokolateak, -2017ko urtarrilaren 22a : Mus txapelketa Donamartirin, - 2017ko maiatza : Gogoetetzen ari giren proiektuak.

- bixkotx salmentak antolatuak izanen dira urte osoan zehar.

HAURRENTZAT elkarteari esker 2 eskolako hurrek eskola ateraldiak egiten ahal dituzte, eta eskolako bizi baldintzak hobetzen ahal dira.

Horretarako, bulegoak antolatzen dituen aktibitate ezberdinetan gurasoen parte hartze aktiboaren eta borondatearen beharra du, eta eskertzen ditu haien sustenguagatik eta haien gogo zabaltasunagatik, jakinez haien presentzia garrantzizkoa gelditzen dela ekitaldi guzrien gauzatzeko.

Elkarteari esker, haurren kirol eta kultur ateraldiak diruztatzen ahal dira (ikusgarriak, zinema...), joko eta materiala erosten ahal da gure haurren aietasunarendako, eskolako lan baldintzak hobetzeko.

Elkarteak guraso eta herritar guziak, Donoztiriko eta Donamartiriko Herriko Etxeak eskertzen ditu, gure eskolari erakusten dioten sustenguagatik.

Ikasleen guraso elkartea.

## ARBEROA IKASTOLA

Arberoa Ikastola, Donamartiriko Arberoa Ikastolan eskolatuak diren haurren burasoen elkarte da. Hezkonde nazionalaren ardurapeko eskola da, Euskarazko murgiltze sisteman oinarritzen dena. 2016.2017 ikasturteko sartzea 67 ikaslerekin iragan da.

2016 urtean, ekitaldi desberdinak antolatuak izan dira, Donamartirin eta ondoko herrietan, beti ber helbururekin:

- Ikastolako hiru langile, material eta proiektu desberdinen diruztatzeko.
- Herriko bizian orokorki parte hartzeko, Euskal kultura bultzatuz.

2016eko EKITALDIAK:

- Otsailaren 6an Hazparneko eskualdeko ihauteriak iragan dira. Kari hortarat, ikastolako haurrek bi ikusgarri aurkeztu dituzte, bat Donamartiriko plazan eta bestea Izturitzeko Artetxean, ipuin klasiko bermoldatuen inguruan.
- Otsailaren 18an Ikastola Rok kontzertua antolatua izan da, Hazparneko Ttattolan (Baigura ikastolarekin elkarlanean).
- Otsailaren 19an, usaiatzko Bertso afaria antolatua izan da Donamartiriko gelan: aurten Amets Arzaillus eta Jesus-Mari Irazu gomit ziren.
- Urteko ateraldia apirilaren 28 eta 29an iragan da: duela 2 urte bezala ikasleak Nafarroako Irunberrirat joan dira. Hango lagunekin espazioa gaiaren inguruan lan egin dute eta itzultzeko bidean Donostiako Eureka zientzi museoa bisitatu dute.
- Maiatzean, urte guziz bezala, burasoak Senpereko Herri Urratsen lan egitera joan dira. Besta handi horren etekinak Egoitza elkartearen alde joaiten dira. (Egoitza: ikastola guzien eraikuntzetaz arduratzen den egitura).
- Hiruzango, ibilaldi-VTT eguna, maiatzaren 15an Urtsumendin antolatua izan da Hazparneko Ezkia ikastolarekin. Aurten ere aroa lagun, ibilaldi derberdinak eta ondoko animazioa preziatuak izan dira.
- Arberoa Eguna besta herrikoia ekainaren 18an iragan da: goizean haurrek heien ikusgarri berria aurkeztu dute “Arberoa estilo askean”, eta usaiatan bezala bestak segitu du burasoek prestaturik bazkari on batekin, kantu eta musika lagun.



- Ondoko ikasturterat pasatuz, usaiatzko ganer hustea Izturitzen iragan da, azaroaren 6an.
- Donamartiriko krossaren ondotik, talo salmenta ere izan da, azaroaren 20an.
- Abenduaren 4an, Eguberriko merkatua Izturitzeko gelan antolatua izan da. Aurten tokiko 20 bat ofizialek giro goxo batean heien ekoizpenak aurkezten ahal zituzten.
- Urtea bukatzeko, Eguberriko besta abenduaren 18an iragan da: hasteko, hurrek Eguberriko kantuak Elixabehearean eman dituzte, Olentzero jin arte. Ondotik, ikastolako geletan prestatuak ziren «Magiari » buruzko 6 ikusgarri ttipi aurkeztuak izan dira. Bukatzeko, gaualdia izan da herriko gelan

#### IKASTOLA:

Euskarazko murgiltze orokorreko eskola da: hurrek bakarrik Euskaraz ikasten dute bigarren urtea arte, eta frantses hizkuntza pixkanaka sartzen da 2. urtetik goiti 5. urtean haurra elebidun izaiteko gisan.

Eskolako proiektuaren oinarriak: komunikazio enpatikoa, autonomia eta nortasunaren garapena, ingurumenaren zainketa (ondarkinen bereixketa, baratzegintza, bio haskariak...)

Jakin zazue Arberoa Ikastolako ate idekiak 2017ko martxoaren 11an izanen direla. Anartean ez duda web gune berriaren bisitatzerat joaitea: [www.arberoaikastola.org](http://www.arberoaikastola.org)

Xehetasun batzuentzat, deitzen ahal dituzue:

- Joëlle Thicoipe: 05.59.25.53.18
- Solange Duhau: 06.83.42.19.83
- Ainara Orbezua: 06.23.46.15.18
- Ikastola : 05.59.29.76.23

---

## *Herri kontalarien elkarte*

Gure elkarte hor da herri kontalarien engaiamenduari eta kotizazioei esker, eta bistan dena gure aldekoen, erakundeen eta herrien eskuzabaltasunari esker. Herri kontalarien elkartearen izenean, eskertu nahi zaituztet eman diguzuen diru laguntzarendako.

2016 urtean bi gertakari kolektibotan parte hartzeko aukera izan dugu Donamartirin :

- Ekainean, “Arberoa bere biztanleen bidexketatik” haraneko gailurretan gaindi “Basarea” elkartearekin
- Agorrilean, “Arberoan ihes”, herriko eragile guziekin

Arberoako kontalariak haien zerbitzuak segitzen dituzte, haranaren ezagutarazteko eta bisitak proposatzen dituzte gai ezberdinen inguruan.

Eskolaldi inguruko jardueretan ere parte hartu dute ikastolan eta eskola publikoan.



Elkartearen garapen proiektuetarik bat formakuntza erakunde bilakatzea zen. Lehen urratsa formakuntza saio baten aktibatzea zen onespena ukaiteko. Atseginekin jakinarazten dizuet saio hau larrazkenean iragan dela : 9 moduloetatik 7 Donamartirin iragan dira.

64 departamenduko, Gers eta Landesetako kontalari berriak sarea osatzera jin dira.

Atseginekin jakinarazten dizuet ondoko saioa primaderan iraganen dela. Deneri irekia da. 2017ko egitarauari buruz xehetasun gehiagoren ukaiteko, enekin harremanetan sar zaitezket.

Nahi baduzue, zuen ateraldiendako, Herri kontalarien lanen berri ukan departamendu guziarendako edo departamendutik kanpo, ez dudarik ukan, informazioa hemen da:

- Gure webgunea : [www.raconteursdepays.com](http://www.raconteursdepays.com)
- e-gutuna: [asso@raconteursdepays.com](mailto:asso@raconteursdepays.com)
- Tel : 06 61 43 60 40
- Idazkaritza : Marie Luce Garat - 06 75 86 99 08

Herri kontalari guziek enekin bat egiten dute Donamartiritar guzier gure agiantza hoberenak egiteko 2017 urtearendako.



Dudarik ukan gabe aurten ere herriarekin partaidetza berrien egiteko aukera izanen dela, aitzinetik eskertzen zaituztet.

Marie Luce Garat,

Pirinio Atlantikoetako Herri Kontalarien elkarteko lehendakaria

---

## *Liburutegia*

2016ko otsailaren 1ean abian emana, gaur egun 25 bazkide eta, emaile eskuzabalei esker, 3.000 liburu ditugu, horietarik anitz haur liburuak.

Euskarazko, gaztelarazko eta ingelesezko liburuak ere baditugu.

Donamartiriko eskolako haur anitz hurbiltzen zaigu baina handienak ez jitea dolu dugu (haiendako liburu anitz badugu).

DONAMARTIRIko eskolak, sartzean liburuaren eta irakurketaren inguruko proiektu bat abian emanen duela hitz eman digu, DONOZTIRIko eskola ere ikustera joanen gara.

Leitu ezin dutenendako grabaketak baditugu, entzutea besterik ez da!

Apalendako, etiketendako, zurubiarendako eta gure esku urririk utzi duen egoitzarendako herriko etxea eskertu nahi dugu.

Gaur egungo irekitze egun eta tenoreak: astelehenetan, 15:30etik 17:00etara

larunbatetan, 10:00etatik 12:00etara

#### FINANTZA TXOSTENA

|   |             |
|---|-------------|
| Diru sartzeak   | 125,00 Euro |
| Xahutzeak: ate irekitzeak, Inter. Fakt. 03/19                     | 32,80 €     |
| Dulong Zigilu markatzailea 01/28                                  | 3,80€       |
| Eskotx/papera Inter. 12/04  | 4,48 €      |
| Dulong hornidurak 11/16   | 32,25 €     |
| Dulong etiketak 12/01   | 18,40 €     |
| Orotara   | 91,63 €     |
| Irabaziak   | 33,27 €     |
| Arduradunak: Josiane, Jacqueline, Dominique, Jean Michel eta Mado |             |

---

## *A.C.C.A. Donamartiri*

Kaltegarrien (azeri, fuin, koipu, etab...) desagerrarazteko informazio eta teknikak

1. Tranpa bidezko desagerraraztea:

Inguramenaren kodearen eraginpean, tranpa bidezko aktibitatea juridikoki biziki arautua da eta tranpa ezartzen duena behartzen du:

- Formakuntza bat egitea
- Prefetak onetsia izatea
- Edozein tranpa mota ezarri baino lehen suntsitze agiria eskuratzea, baita tranpa ezarriko den lekuko lurren jabearen edo laborariaren baimen izenpetua ere.

2. Ihizi elkarteko zaintzaileak.

Zaintzaileek, egunez “tiroz” desagerrarazteko baimena dute eta mandatua jaso ditene lurrendako kaltegarri gisa sailkatuak diren animalientzako soilik.

Gaur egun emaitza onenak tranpa bidez lortzen direla frogatua da. A.C.C.A.k “tranpa emaille” gisa onetsia izateko formakuntzan parte hartzeko interesatuak direnak gomitatzen ditu.

A.C.C.A.k beharrezkoak diren formalitateak beregain hartuko ditu

## *Erberuako dantzariak*

“Erberuako dantzariak” elkarteak bere aktibitateak segitzen ditu.

Aurten 2 talde berriz sortu ahal izan dira : Hasiberri talde bat (5/6 urte) eta bigarren talde bat Haundiagoendako.

laz murrizta zen haur kopuruak hala ere Dantzari Ttikin parte hartzeko ahala eman dauku (Donibane Lohitzunen zen). Urtero maiatzeko hitzordua, gure dantzari ttipiak ezinegonez horren beha dira eta orduan urtean zehar ikasi dituzten dantzak aurkezten dituzte.

Aurten kopuru handiagoarekin, erretxago izanen zaigu ikusgarrien proposatzea aukera ukaiten badugu (herriko pestak edo beste...)

Urte berri on !

---

## *Denek bat*

Klubaren aurkezpena

Denek Bat elkarteak Armendaritze, Heleta, Iholdi, Landibarre, Mehaine, Donamartiri eta Donoztiri herrietako pilotariak biltzen dituen pilota kluba da.

Denek Batek, gaur egun, 221 bat lizentziadun ditu, esku huskan gizonezkoak eta gomazko paletan emazteak. Hauek Euskal Herriko eta Landesetako kirol instalazio ezberdinetan aritzen dira (Trinketa, ezker pareta, plaza laxoa).

Urte guzietan, kluba bere jokalariez harro egoteko arrazoinak ditu; izan ere, Denek Bateko pilotariak emaitza ederrak erdiesten dituzte txapelketa ezberdinetan. Azkenak 2016 urtekoak izan dira, maila guziaz nahasirik, Frantziako eta Ipar Euskal Herriko txapelkun izan baita plaza laxoko, trinketako eta ezker paretako txapelketetan.

Azken urteetan pilota eskolako kopuruak etengabe emendatuz doaz eta, gure hezitzaileen lan bikainari esker, Denek Bat elkarteak biziki presente da Ipar Euskal Herriko, Biarnoko eta Landesetako kantzetan, azken emaitzetan agertzen den bezala.

Berri guziak klubak duen webgunean segi ditzakezue,

[www.denek-bat-pilotan.fr](http://www.denek-bat-pilotan.fr)

Arduradunarekin harremanetan sar zaitezket 06.08.95.94.23 zenbakira deituz.

